# GETXOKO INGURUMEN ARETOKO OTSAILEKO PROGRAMAZIOA

## OTSAILAK 1

### BIO-DIBER TAILERRAK: HEZEGUNEKO ANIMALIAK INTXAURREKIN

Hezeguneen Munduko Eguna gertu dagoela aprobetxatuz, 3 urtetik gorakoentzako tailer honetan parte hartzen duten haurrek intxaurrak berrerabili ahal izango dituzte ekosistema mota honetan bizi diren animalietako bi egiteko: dortokak eta igelak. Amaitzeko, dortoken putzua bisitatuko da, animalia inbaditzaile horien problematikak gure hezeguneetan nola eragiten duen azaltzeko.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

## OTSAILAK 2

### YINCANA 2.0. (HEZEGUNEEN MUNDUKO EGUNA)

Ginkana 2.0. autogidatuarekin familiek eta lagun taldeek (8 urtetik aurrerantz) hezegunea ezagutzeko aukera aparta izango dute hainbat joko eta ekintzaren bidez. Parte hartzaileek proposatutako puntuetan gelditu beharko dute eta horietako bakoitzean froga bat burutu.

Jarduerak 2 ordu inguru irauten du. Ekintza hasteko ordutegiak: 10:15, 10:30, 10:45 eta 11.00. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## OTSAILAK 8

### ESCAPE ROOM: ZABORRETA DOKTOREA

Zaborreta Doktoreak ingurumenarekiko sortu duen plan suntsitzailearekin bukatzeko beharra dago. Horretarako, familiek eta taldeek hainbat froga eta pista gainditu eta topatu beharko dituzte, doktoreak bere egitasmoa lor ez dezan eta Ingurumen Aretotik garaiz ihes egiteko. Modu aktibo zein dibertigarri baten ingurumen arlo desberdinak jorratuko dira: hondakinen kudeaketa, biodibertsitatea, kontsumo arduratsua, besteak beste.

Ekimen hau ordu eta erdikoa da eta gehienez 6 kideko taldeetan egingo da. Bi txanda egingo dira: lehenengo saioa 10:30ean hasiko da eta bigarrena 12:15ean. Beharrezkoa da aurretik izena ematea eta gutxieneko adin gomendatua 8 urtekoa da.

## OTSAILAK 9

### STREET ESCAPE: GELDIARAZI INBADITZAILEAK!

8 urtetik gorakoentzako abentura jokoa da. Parte-hartzaileek hainbat enigma eta buru-hausgarri deszifratu beharko dituzte Arkaitzi laguntzeko. Izan ere, biologo oso despistatua da, eta espezie inbaditzaile bat autoktono batekin nahastu du. Jarduera honen bidez, espezie exotiko inbaditzaileek sortzen dituzten arazoak ezagutaraziko dira, baita gure inguruko espezie batzuk ere. Ohiko Escape Room-etan ez bezala, gainditu beharreko probak, pistak, objektuak eta enigmak ez daude gela bakar batean, espazio ireki batean baizik. Beraz, parte-hartzaileak Ingurumen Aretoko hainbat

espaziotatik mugitu beharko dira 4 espezie exotiko inbaditzaileren izenak aurkitu arte. Horrela, Arkaitz biologoaren tranpan erori den animalia autoktonoa askatu ahalko da . Ordubete baino lehen egin ahal izango duzue?

Hiru txanda egingo dira: 10:15, 11:15 eta 12:15. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## OTSAILAK 15

### EKO-JOSTAILUAK: ARRANTZA-JOKOA IMANEKIN ETA PLASTIKOZKO TAPOIEKIN

6 urtetik gorako haurrei zuzendutako jostailu iraunkorren tailer honetan, parte-hartzaileek plastikozko tapoiak berrerabili ahal izango dituzte, feltroz apainduz eta iman bat jarriz, arrantza-joko bat egiteko. Bertan, ahalik eta arrain gehien arrantzatzen saiatu beharko dute, beste iman bat itsatsitako makila bat erabiliz.

Bi txanda egingo dira: 10:30etik 11:45era eta 12:15etik 13:30era. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

## OTSAILAK 16

### AZTARNEN BILA

6 urtetik gorako umeei zuzendutako jarduera honetan gure inguruko animaliek uzten dituzten arrastoak identifikatzen ikasiko dugu. Ekintza bi zatitan banatzen da: ginkana autogidatu bat egingo da ezkutatutako aztarnak aurkitzeko, eta ondoren, Ingurumen Aretoko hezitzailearen laguntzaz aztarna baten moldea egingo da buztinarekin. Eskulana egiten den bitartean, animaliek uzten dituzten beste arrasto-mota batzuk erakutsiko dira.

Bi txanda egingo dira: 10:30etatik 11:45etara eta 12:15etatik 13:30etara. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## OTSAILAK 22

### ESKULAN JASANGARRIAK: INAUTERIETAKO MASKARAK

6 urtetik gorako umeei zuzendutako eskulan tailer honetan kartoia berrerabili ahal izango dugu inauterietarako animalia itxurako maskara jasangarriak egiteko, oreina edo hontza kasu.

Bi txanda egingo dira: 10:30etatik 11:45etara eta 12:15etatik 13:30etara. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## OTSAILAK 23

### IBILBIDE GIDATUA: INAUTERIETAKO ETA NEGUKO AMAIERAKO ERRITUAK ZUHAITZEN BITARTEZ

Eguzkiak, pixkanaka, bere bizitasuna berreskuratu du, lurrari bere esentzia, bere botere telurikoa eta bere energia indargarria emanez, natura bere neguko lozorrotik esnatu dadin: argiaren garaipena da itzalen gainean.

Aitor Ventureirak (Hojarasca Elkartea) gidatutako ibilbide honen bidez, urte sasoi honekin zerikusia duten euskal errituak ezagutuko ditugu. Bolueko hezegunetik paseatuko gara, eta hainbat zuhaitz-

espezieren presentzia aprobetxatuko dugu. Haren itzalean, negu bukaerako errito, sinesmen, tradizio eta mitologia zahar hauek aletuko ditugu.

Jarduera 10:30ean hasiko da Ingurumen Aretoan, eta 13:30ean amaituko da Bolueko hezegunean. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretoko baieztapena jasotzea.

## OTSAILAK 23

### ZOMORROEN-BILA

Jarduera berri honen bidez, 8 urtetik gorako haurrek eta haien familiek gure inguruko intsektu eta zomorrotxoen zati bat ezagutu ahal izango dute, gure ekosistemetan betetzen duten funtzioa ezagutu eta kontserbazioaren garrantziari buruz hausnartu ahal izango dute. Horretarako, lupa batzuk erabiliz, zerrenda batean identifikatuko dituzte ikusten dituzten animalia txiki guztiak. Ondoren, gure intsektarium-ean benetako intsektuak mikroskopio digitalaren bidez ikusi ahal izango dituzte eta, amaitzeko, intsektu bat irudikatzen duen eskulan xume bat egin ahal izango dute, hainbat elementu berrerabiliz.

Ordutegia: 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30 eta 13:00. Beharrezkoa da aldez aurretik izena ematea eta Ingurumen Aretotik baieztapena jasotzea.

# PROGRAMACIÓN DE FEBRERO DEL AULA AMBIENTAL DE GETXO

## 1 de FEBRERO

### TALLERES BIO-DIVER: ANIMALES DEL HUMEDAL CON NUECES

Aprovechando la cercanía del Día Mundial de los humedales, los y las txikis de más de 3 años que participen en este taller podrán reutilizar nueces para hacer uno de los animales típicos de este tipo de ecosistemas: tortugas y ranas. Para terminar se visitará la charca de tortugas para hablar de cómo afecta la problemática de estos animales invasores en nuestros humedales.

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 2 de FEBRERO

### YINCANA 2.0. (DÍA MUNDIAL DE LOS HUMEDALES)

En esta actividad las familias y grupos (a partir de los 8 años) que participen tendrán la oportunidad de conocer el humedal de Bolue mediante juegos y actividades al aire libre. Las personas participantes tendrán que detenerse en las paradas propuestas y en cada una de ellas llevar a cabo una prueba.

La actividad dura unas 2 horas. Se realizarán 4 turnos: 10:15, 10:30, 10:45 y 11:00. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 8 de FEBRERO

### ESCAPE ROOM DEL DOCTOR ZABORRETA

El Doctor Zaborreta ha ideado un devastador plan para destruir el Medio Ambiente de Getxo. Para evitar sus planes, las familias y los grupos participantes deberán de superar y buscar distintas pruebas y pistas que desactivarán el plan del malvado doctor, y conseguir escapar a tiempo del Aula Ambiental. De una manera activa y divertida se trabajarán diferentes aspectos medio ambientales, como la gestión de los residuos, la biodiversidad o el consumo responsable, entre otros. Esta actividad durará entorno a una hora y media y se realizará en grupos de 6 personas como máximo (los grupos han de ser de mínimo de 5 personas).

Se harán dos turnos: a las 10:30 y a las 12:15. Necesaria inscripción previa. Edad mínima recomendada 8 años.

## 9 de FEBRERO

### STREET ESCAPE: ¡DETENGAMOS A LAS INVASORAS!

Se trata de un juego de aventura para mayores de 8 años. Los participantes deberán descifrar varios enigmas y rompecabezas para ayudar a Arkaitz. De hecho, es un biólogo muy despistado que ha confundido una especie invasora con una autóctona. A través de esta actividad se darán a conocer los problemas que generan las especies exóticas invasoras, así como algunas especies de nuestro entorno.

A diferencia de los tradicionales Escape Room, las pruebas, pistas, objetos y enigmas a superar no están en una sola habitación, sino en un espacio abierto. Por tanto, los participantes deberán desplazarse por

diferentes espacios del Aula Ambiental hasta encontrar los nombres de 4 especies exóticas invasoras. Así, se podrá liberar al animal autóctono que ha caído en la trampa del biólogo Arkaitz. ¿Podrán hacerlo en menos de una hora?

Se realizarán tres turnos: 10:15, 11:15 y 12:15. Es necesario inscribirse previamente y recibir la confirmación del Aula Ambiental.

## 15 de FEBRERO

### TALLER DE ECO-JUGUETES: JUEGO DE PESCA CON IMANES Y TAPONES DE PLÁSTICO

En este taller de juguetes sostenibles, dirigido a txikis de más de 6 años, los y las participantes podrán reutilizar tapones de plástico, decorándolos con fieltro y colocándoles un imán, para hacer un juego de pesca en el que tendrán que intentar pescar el mayor número de peces usando un palo al que se le ha pegado otro imán.

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 16 de FEBRERO

### TRAS LOS RASTROS

Se trata de una actividad dirigida a mayores de 6 años para aprender a identificar los rastros que dejan los animales de nuestro entorno. Consta de dos partes: una yincana autoguiada para encontrar las huellas escondidas y una manualidad para hacer el molde de una huella con la ayuda de un educador o educadora. Mientras se hace la manualidad se mostrarán otros tipos de rastros que dejan los animales.

Se realizarán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 22 de FEBRERO

### MANUALIDADES SOSTENIBLES: MÁSCARAS DE CARNAVAL

En este taller de manualidades, dirigido a niños y niñas de más de 6 años, podremos reutilizar cartón para hacer unas máscaras sostenibles para carnaval con forma de animal, como el ciervo o el búho.

Se harán dos turnos: de 10:30 a 11:45 y de 12:15 a 13:30. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 23 de FEBRERO

### ITINERARIO GUIADO: LOS RITOS DEL CARNAVAL Y FINAL DE INVIERNO A TRAVÉS DE LOS ÁRBOLES

El sol ha ido recuperando su vitalidad poco a poco, aportando a la tierra su esencia, su poder telúrico y su energía revitalizante, para que la naturaleza despierte de su letargo invernal: es el triunfo de la luz sobre las sombras.
A través de este itinerario guiado por Aitor Ventureira (Asociación Hojarasca) conoceremos distintos ritos vascos relacionados con esta época del año. Pasearemos por el humedal de Bolue, donde aprovecharemos la presencia de varias especies arbóreas. A su sombra desgranaremos estos viejos ritos, creencias, tradiciones y mitología de finales de invierno.

La actividad comenzará a las 10:30 en el Aula Ambiental, y terminará a la 13:30 en el humedal de Bolue. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.

## 23 de FEBRERO

### "BICHEANDO"

Por medio de esta nueva actividad los y las txikis de más de 8 años y sus familias podrán conocer parte de los insectos y otros "bichitos" de nuestro entorno, conocer la función que cumplen en nuestros ecosistemas y reflexionar acerca de la importancia de su conservación. Para ello, usando unas lupas, podrán identificar en una lista que les daremos todos aquellos animalitos que vean. Después podrán observar insectos reales de nuestro insectario a través del microscopio digital, y para terminar podrán elaborar una sencilla manualidad que represente un insecto, reutilizando distintos residuos.

Horario: 10:30, 11:00, 11:30, 12:00, 12:30 y 13:00. Es necesaria la inscripción previa y recibir confirmación por parte del Aula Ambiental.